


Astekaria

**Z  
E  
R  
R  
A  
A  
A**

**elgoi**



**Eguraldi hobea  
egingo al du!**

TXENTXO



**HUSQUARNA  
MOTOSERREN  
ESKEINTZA  
BEREZIA**

**garajea**

**ASTIGARRAGA**

San Frantzisko, 53. Tel. 74 01 86



**DESBROZADORA  
JAPONIARRAK  
PREZIO EZIN  
HOBEAN**

- ✘ Ziklomotore eta motorren konponketa eta salmenta
- ✘ Motoserrak
- ✘ Desbrozadorak
- ✘ Neumatikoak
- ✘ Bizikletak

## KALKULU ORRIA I

DATA: 95 - 02 - 06  
IRAUPENA: 45 ordu  
ORDUTEGIA: 18 - 21

## DATU BASEAK I

DATA: 95 - 03 - 06  
IRAUPENA: 45 ordu  
ORDUTEGIA: 18 - 21

## TESTU TRATAMENDUA I

DATA: 95 - 05 - 12  
IRAUPENA: 45 ordu  
ORDUTEGIA: 18 - 21

## INFORMATIKA OROKORRARI APLIKATURIKO SISTEMA OPERATIBOAK

DATA: 95 - 04 - 03  
IRAUPENA: 24 ordu  
ORDUTEGIA: 18 - 21

## TESTU TRATAMENDUA II

DATA: 95 - 05 - 15  
IRAUPENA: 45 ordu  
ORDUTEGIA: 18 - 21

## RUSO MERKATARI OINARRIZKOA

DATA: 95 - 02 - 13  
IRAUPENA: 100 ordu  
ORDUTEGIA: 17 - 21

## INJEKZIO ETA PIZKETA SISTEMA KONBINATUAK

DATA: 95 - 05 - 08  
IRAUPENA: 40 ordu  
ORDUTEGIA: 16 - 20

## MERKATARIEI ZUZENDURIKO OINARRIZKO IKASTAROA

DATA: 95 - 02 - 27  
IRAUPENA: 20 ordu  
ORDUTEGIA: 14,30 - 17

# 1995

## 1. seihilabeteko

# IKASTAROAK

Elgoibarko Lanbide  
Heziketarako Institutua

Elgoibarko Batxilergo  
Institututua



## HARREMAN KOMERTZIALAK EUSKARAZ

Enpresa mundua ere euskaratu behar dugu. Hau dela eta, gure harreman komertzialak (eskutitzak, txostenak, e.a.) euskaraz moldatzeko ikastaroa antolatu dugu. Iraupena 20 ordu Matrikula: 5.000 pta. Irakaslea: Andres Alberdi

## INFORMAZIO ETA IZENEMATEAK:

☎ (943) 74 44 80 - 74 44 85

Fax: (943) 74 11 68

Arregitorre, 2  
20870 ELGOIBAR

## HARRERA HARTZEA ETA SALMENTA TELEFONOAREN BIDEZ

DATA: 95 - 03 - 06  
IRAUPENA: 20 ordu  
ORDUTEGIA: 18 - 20,30

## TELEMARKETING

DATA: 95 - 03 - 13  
IRAUPENA: 30 ordu  
ORDUTEGIA: 18 - 20,30

## SALMENTARAKO SIKOLOGIA

DATA: 95 - 05 - 08  
IRAUPENA: 30 ordu  
ORDUTEGIA: 18 - 21,30

## SOZIEATEEN GAINEKO ZERGA

DATA: 95 - 03 - 20  
IRAUPENA: 20 ordu  
ORDUTEGIA: 18 - 20,30

## MEKANOGRAFIA AUDIOBISUALA

DATA: 95 - 04 - 10  
IRAUPENA: 30 ordu  
ORDUTEGIA: 18 - 20

## NOMINAK ETA SEGURITATE SOZIALA

DATA: 95 - 05 - 08  
IRAUPENA: 45 ordu  
ORDUTEGIA: 18 - 21

## AIRE EGOKITUA

DATA: 95 - 02 - 13  
IRAUPENA: 16 ordu  
ORDUTEGIA: 16 - 20

## ENPRESA TXIKIETAKO HORNIDURA ETA STOCK GESTIOA

DATA: 95 - 05 - 15  
IRAUPENA: 20 ordu  
ORDUTEGIA: 18 - 20,30

## MARKETING ZUZENA

DATA: 95 - 02 - 20  
IRAUPENA: 20 ordu  
ORDUTEGIA: 18 - 20,30

elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

**ARGITARATZAILEA:**  
Elgoibarko Izarra.

**LAGUNTZAILEA:**  
Elgoibarko Udala.

**ZUZENDARIA:**  
Alberto Agirreazaldegia.

**HIZKUNTZA ARDURADUNA:**  
Anjel Ugarteburu.

**ERREDAKZIO KONTSEILUA:**  
Iñaki Arrieta, Antton Bergara,  
Eduarne Bilbao, Rosa Iriondo,  
Jose Inazio Sarasua.

**KAZETARIAK:**  
Ainhoa Lodoso,  
Jasone Osoro.

**MAKETATZAILEAK:**  
Maite Rementeria,  
Edu Sanz.

**PUBLIZTATEA:**  
Nekane Etxaniz.

**ADMINISTRATZIOA:**  
Josune Fernandez,  
M. Angeles Ortuoste.

**KOLABORATZAILEAK:**  
Itziar Agirregomezkorta, Ana  
Aizpiri, Gotzon Arrieta, Pello  
Arrieta, Belen Arrizabalaga, Jon  
Barandiaran, Mikel Cornejo, Asier  
Etxaniz, Felix Etxeberria, Itziar  
Fernandez, Koldo Galdona, Jose  
Mari Galdos, Ina Garagarza,  
Gotzon Garate, Joseba Gorosabel,  
Xabier Gorriti, Alfonso Guilló,  
Maite Iriondo, KOKOIE, Eduarne  
Korta, Enrike Larrañaga, Imanol  
Larrañaga, Jesus Mari Makazaga,  
Iñaki Odriozola, Jose Inazio  
Sarasua, Olga Unzilla, Miryam  
Villasante, Aitor Zabaleta, Yulen  
Zabaleta.

**BANAKETA ARDURADUNA:**  
Imanol Larrañaga

**INPRIMATEGIA:**  
Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)

**TIRADA:** 3.300 ale

**LEGE GORDAILUA:** SS-1.038/92

**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere  
gain hartzen aldizkarian  
adierazitako esanen eta  
iritzien erantzunkizunik.



## Espezialistak

**G**ure gizarte aldakor honetan gero eta jende gehiago dago espezializatua. Aurreko hamarkadetan, eskoletako ikasketak enziklopedikoak izaten ziren, hau da, kultura orokorra oinarritzat hartu eta hura lantzen zen.

Gaur egun ostera, arlo zehatzetara jotzeko joera dago eta inork imajina ezin zitzakeen master eta ikastaroak ditugu gure artean; egunkarrietan edo edozein bazterretan irakurri besterik ez dago. Espezializazio honek zera ekarri du: zerbaitetaz ondo baino hobeto jantzita ez bageaude nekez zabalduko dugu ahoa.

Horrela, informatikan aditu baten aurrean inor gutxi ausartzen da RAM memoriaz edo inprimagailu materialez hitz egiten; edo telebista saltzen duen dendariari ea nork galdetzen dion “tracking” edo “search” hitzen esanahaia memelo aurpegia jarri gabe. Eta gauza bera tornero, sendagile edo artotz baten parean jartzen garenean.

Sarritan egoera honetan isilik egotea proposena dela iruditzen zaigu, eta espezialista delako hori gure iritzi, edo ustekabea edo dena delakoa jakin gabe geldituko da... bere mesederako, jakina.

Urte batzuk badira lagun arteko afari batera teologo bat etorri zela gutariko norbaitek gonbidaturik... edo nonbait irakurri dut?... Batek daki! Ez dut esango gure artean berba desitxurosorik esaten ez dugunik baina gau osoan berbetan eten

gabe egon eta aiba Dios!! jator bat bera ere inortxori ere ez irteea! Espezialistaren (teologoa) presentzia, dudarik ez.

Ahaleginak egin behar ditugu espezialisten eremutxoak biguintzen eta hildo honetan kokatzen dut neure presentzia **BARREN**en, ez baina ez idazle, ez eta kazetaria ere.

Denok sasi-espezialistak garela ere onartu behar dugu: ogibidez, adinez, edo beste arrazoi batzuegatik. Beste batzuen artean hauek aipatuko nituzke:

Iraganeko espezialistak: “Treintaiseis”ean eta ondorengo urteetan adituak... orduan bai giro, orduan!!...gure gazte denboran!!


Orainaldiko espezialistak: munduko moda guztien berri dakitenak, alternatiba zaleak baina... hurrengo boladara arte.

Sasoiko espezialistak: egun hauetan Elgoibarren banaka batzuk azalduko dira Mugerza lasterketa dela eta; urte guztian krosari kasurik egin gabe eta kolpera Mammo Wolderen Gabonetako postala jaso dutela esango digutenak.

Sailkapen hau mugagabea ez bada, ez zaio asko falta; neronek arlo tenporala jorratu dut, baina artikulua interaktiboa edo izateko, irakurlearen eskuetan lagatzen dut sailkapen hau osatu eta astekari honi bidaltzea.

**Joseba Konde**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*





## GALDERAK

Honako galdera hau etorri da BARRENeKo erredakziora: **“Zergatik kendu dituzte Lanbroaren atze aldean zeuden banku edo eserlekuak?”**

Udal Brigadako arduradunak honako erantzun hau eman digu: “Maalako parkeko bankuak zirenez Lanbroa ostetik altxatzeko agindua etorri zitzaigun Udaletxetik”.



## KEXAK

Emakume talde batek deitu digu Bernardo Ezenarro kalean dagoen “paso zebra” (Boutique del Pan parean) kotxe gidariek ez dutela errespetatzen esan eta salatzen. Axolagabekeria hau guztiz arriskutsua bihurtzen da bertatik ume pila bat pasatzen baita egunero. Ertzainen kotxeak omen dira zebra pasua errespetatzen duten bakarrak.



## TXALOA

Aste honetako txaloa ere kirolari batentzat da: Joseba Etxeberriarentzat, hain zuzen ere. Deitu digun pertsona izugarri poztu omen da Errealean debutatu duelako eta onena opa dio. Hala ere, aholku bat eman nahi dio: “hankak lurrian eta burua argi eukitzia inportantia da urrutira ailegatzeko”.

# ESKUTITZAK

## Zertara dator Ertzantza?

**S**an Anton jaiak zirela eta, gure Udaletxeko mandatariek “musika” jotzera gonbidatu zuten Ertzantzaren banda. “Marka” guztiak apurtzen ari da baina “Ertzantza” hau.

Ertzantzak itxaropena sortzen zuen hasera batean; Guardia Zibila eta polizia espainolaren irudiak gure buruetatik ezabatu nahi genituen. Urteen poderioz PNVk eta bere lagun espainiarrek instituzio honen izaera galduarazi dute.

Jeltzaleek Ertzantza marko antidemokratiko baten defentsan ariete bat bezala erabiltzen dute, “errejionalismo sano” baten defentsan, askatasunaren aurka borrokan jarriz. Zentzu honetan ulertu behar da Ertzantzak ezker abertzalearen aurka, gure herriaren subiranotasunaren alde gaudenon aurka daraman jokabidea: militanteen hilketak, atxiloketak, torturak, Eusko G.A.L. delakoaren sorrera (gaueko pintadak, telefono deiak, abertzaleen kotxeen markatze eta pintatzeak...). Ertzantza polizia integralaren atzean, beraz, Euskal Herriaren aurkako apustu errepresibo hutsa izkutatzen da.

Honekin batera PNVren gizartea kontrolatu nahia haundituz doa, telefonoak pintxatuz, bideo kamarak nonahi

jarriz, gizarte eskuindar eta errepresiboaren oinarriak jarriz.

**EZ INOR ENGAINATU!**

Astean zehar uniformatu hauek beste instrumentu batzuk erabiltzen dituzte, eta jotzen ibiltzen dira, baina ez dute MUSIKA jotzen, gazteak, langileak eta boterearekin bat ez datorren edozein hiritar baizik.

## Elgoibarko Herri Batasuna

## Zergatik mezak elebidunak?

**O**rain arte Elgoibarko euskaldun batzuk genuen kezka bat besterik ez zela pentsatzen nuen, baina hara non elgoibartar erdaldunek ere arazo berdinarekin aurkitzen diren:


Zer arrazoi dago MEZAK bi hizkuntzatan egiteko?

Euskaldunoi ez zaigu ongi iruditzen ez eta erdaldunei ere. Nere aitxixak, ez zuen sekula erdaraz egin eta bere hiletaren erdia erdaraz jasan behar izan genuen.

Nere amaginarrebak ez du sekulan euskaraz hitzegin, eta ez du hitzegingo, eta ez du inondik inora ere ongi ikusten, lehen erdaraz bakarrik ziren mezak bietan izatea. Bere iritziz osorik entzungo ez balu bezala gelditzen da.

**M.P.**

## HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



(1963). Lasterketa internazionala izan zen lehen urtea. Leruneko irteera inguruan jendea barra-barra.



# Kroseko protagonistak

Igande honetan Mugerza Memorialaren 52. edizioa burutuko da Mintxetako Udal Instalazioetan. 1943tik gaur arte behin bakarrik laga behar izan dio antolakuntzak lasterketa egiteari, 1981. urtean elurte handi bat zela eta. Mugerza krosak garai eta une ezberdin ugari bizi izan ditu urte guzti hauetan, garai onak eta garai apalagoak ere bai. Une guztiak jasotzea ezinezkoa bada ere, erreportaia honetan horietariko batzuk jaso nahi izan ditugu, bide batez historia apur bat eginez, lasterketa honek izan dituen protagonista ahaztuak gogora ekarriz.

**H**auetariko asko urteren batean lasterketa irabazi zutelako izan ziren protagonista. Beste batzuk ez dira protagonista izan inoiz, isilean geratu direlako haien izenak eta izkutuan beren lana. 1943ean burutu zen lehen-dabizikoz Mugerza Memoriala. Lasterketaren historia-ri buruz Ego-Toki elkarteak duen liburuan idatzia ager-

tzen den bezala, Juan Mugerza lasterkaria zenaren omenez sortu zen lasterketa hau. 37 urterekin hil zen Juan Mugerza eta ordurako 14 aldiz izan zen Espainiako txapeldun 400m, 800m, 1500m eta 5000metrotan eta Gipuzkoako txapeldun krosean eta 400 metrotan. Baina, gauzak nola diren, ez zuen sekula lortu krosean Espainiako txapeldun izatea.



➔ 1943an burutu zen lehen aldiz Mugerza Memoriala. Fase nazionalean Gipuzkoa mailako korrikalariak izaten ziren batez ere. Argazkian Prudencio Ayerra, C. D. San Fernando taldekoa, lehen edizioaren irabazlea.



AZKUE

➔ (1964). Bigarren urtea zen nazioarteko lasterketa moduan. Fermin Arrese Ego-Tokiko antolatzaileetarikoa batekin batera agertzen diren hiru etiopiarrek ezkerretik hasita, Tsegarie Marian eta Mammo Wolde kros korrikalariak eta, Abebe Bikila marathoilaria, azken biak txapeldun olimpikoak izandakoak. Aurreko urtean ere etiopiarrek Elgoibarren izan ziren lasterketak nazioarteko kategoria hartuz. Donostiara etorri zirela aprobetxatuz ekarri zituzten etiopiarrek Elgoibarrera, “donostiarrek baino hobeto ordainduta gainera” gogoan du Arresek. Mammo Wolde lau aldiz izan zen gure artean eta lauetan irabazi zuen.

➔ Hona hemen irudi bitxi bat. Ego-Tokiko Fermin Arrese, Wolde eta Bikila etiopiarrei Leruneko zirkuitoa erakusten. Hotzari aurre egiteko arroparik ezean, Donostian txapelak erosi behar izan zituzten afrikarrek.



“Kanpeoia”ren sasoian atletismoa bizi izan zuten gizon batzuen ekimenez, hauen artean Casto Iraegi, C. D. Elgoibar elkarteak Memoriala antolatzeari ekin zion. Bultzatzaile eta laguntzaile modura, C. D. Elgoibar elkartearen presidentea zen D. Tomas Zubizarreta medikua aipatzen da liburuan. Hauen ordezkari modura hasi ziren antolakuntza lanetan 1947. urte inguruan Fermin Arrese, Jose Gurrutxaga eta Jose Luis Ribate, lehen biek gaurregun oraindik ere jarraitzen dutelarik. Sustriak ondo erroturik, Gipuzkoako kirol egutegiko lasterketa klasiko bat bihurtu zen berehala. 1943tik 1962ra arte izan zen nazio mailakoa eta 1963tik aurrera nazioarte mailako kategoria izan du gaurdaino. Kirolen espezializazioa zela eta, Ego-Toki elkartearen esku geratu zen lasterketaren antolakuntza berau nazioarteko bihurtzean. 1965ean, gaur egun IAAF, orduan ICCU zeritzon erakunde-

➔ (1972). Jakie Stewart eskoziarra podiumean, bigarren Mike Baxter ingelesa eta hirugarren Fernando Gaitan espainiarra. Ogibidez mekaniko dentista zen eskoziar honek hiru aldiz irabazi zuen Elgoibarren.



AZPILIKUETA



➔ (1976). Bost aldiz izan zen Mariano Haro palentziarra garaile Mugerza krosean, bera izan zen lasterketa gehienetan irabazi zuena. Pertsona maitatua eta estimatua zen gure herrian. Elgoibarrera korritzera etortzen bazen ere, ez zen sekula Donostiara joaten, han ez baitzioten ordaintzen.



➔ Carlos Lopes txapeldun olinpikoa Donostiara etorri zela aprobetxatuz Mugerza krosetan Elgoibarrera ekartzea lortu zuten.

ren egutegian sartu zuten Mugerza krosea, maila gutxietan behar bezalako errekonozimendua lortuz.

### Ranking-ean, aurreko postuetan

Estatu mailako lasterketen iazko ranking-ean hirugarrena izan zen Mugerza krosea puntuazioz,

gizonezkoen puntuazioan Donostiako lasterketaren gainetik geratu zelarik. Izan ere, parte hartzen duten korrikalariak Mundialean lortzen duten postuaren arabera, puntuak lortzen dituzten lasterketa batek. Aurten ere hortxe ibiliko da, aurreko postuetan, Mugerza Memoriala.



➔ 1972tik 1976ra bitartean, edizio guztiak irabazi zituen Belen Azpeitiak. Donostiar hau izan da Mugerza Memoriala gehienetan irabazi duen emakumea. Garaipen kopuruan, atzetik, Ana Isabel Alonso dago, hiru garaipenekin.



➔ John Nguigik 1987an irabazi zuen krosea; bost aldiz izan zen munduko txapelduna. 80. hamarkadara arte etiopiarrek izan ziren afrikarren artean nagusi, ordutik aurrera korrikalari keniarrek nagusitu ziren Elgoibarren, Kipkoech, Kororia, Omwoyo... Duela pare bat urte etiopiarrek berriro agertu ziren lasterketa nagusienetan: Fita Bayesa, Gebrselasie eta iazko txapelduna, Addis Abebe.

## Eskiaren inguruan zenbait gogoeta

**E**skiarekin lotutako nire lehen oroitzapenak aspaldikoak dira, 54. urte ingurukoak. Elurra egin zueneko igande batekoak, eskiak San Migeleko bentako atean zeudenekoak. Metalezkoak ziren eskiak; fijazioak, gaurregun ertarokoak kontsidera daitezkeenak, baina orduan liluragarriak irudituzitzaizkidan. Garai hartan bakar batzuek baino ez genuen eskiatzen Elgoibarren, Aralarren, Arantzazun, eta batzuetan Candanchun, hotelen bat eta erremonteak baitzeuden bertan.

Formigal izan zen ikusi nuen lehen eski estazioa. Eibarko lagun batzuekin, zer zen hura ikustera eta juerga asmoarekin joan ginen. Mundu erabat ezberdinarekin egin genuen topo: horrenbeste jende pistetatik behera, arropa zeharo ezberdina, eta nola ez, lehenengo ezustea: telesilla, pistetera igotzeko martxan zegoela eseri behar genuen eta! Eseri ondoren eta telesillako barra jeisteko ahaleginetan geundela, ez digu ba andre batek bere semearen trineoa ematen! Zein luzeak izan ziren 10 minutu haiek, nire pentsamendua une hartan trineo harekin aukitik jaikitze modua topatzea zen eta.

Hurrenak Morkaikoren irteerak izan ziren. Aralarrera irteera bat dut gogoan. Egurrezko eskiak neramatzan. Guardetxea baino 100 metro lehenago zegoen aldats batetik behera, behin eta berriro, igotzeko hainbeste izerdi bota eta gero segundu batzutan jeisteko! Morkaikorekin beste batean Formigalera joan ginen. Sallent herriko *Mediodia* hostalean geunden. Elurretan ahal genuena egin eta gero, otartekoa jan, Sallentera aurobusez jeitsi, dutxatu eta afaldu aurretik kuadrila ederra biltzen ginen txikiteorako. Afal

ostean, kafea hartu eta *Yeti* diskotekara joaten ginen. Berezia zen diskoteka hura, Guass-aren arrastorik ez zuen. Musika ez zen *bacalao* hori, baina antzerako zarata izaten zen. Hotz egiten zuen leku hartan, berotzeko butano estufak zeuden; camping-gas tipokoak han eta hemen ikusten ziren. Giro ona egoten zen beti. Irteerak asteburukoak izaten ziren normalean, eta San Anton edo Amabirjinaren zubia edo antzerako jairen bat tokatzen zenean bi autobus betetzen ziren.

Ondoren gogoia sortzen zaizu eta astebukaera bat baino gehiagoko irteerak planteiatzen dira. Astebukaera motz geratzen da, bidaia astuna egiten da, ordu asko dira, irteera alaia bada ere, itzulera luzea egiten da. Erorketak ere ugariak izaten dira haseran. Monitorea kontratatzea dator ondoren, eta ikastaroak egin eta estazio ezberdinak ezagutu: Candanchu, Ezcaray, Astun, Formigal, Baqueira eta frantsesak ere bai. Autobusetan gero eta jende gutxiago apuntatzen zen eta norberaren autoarekin joateak indarra hartu zuen. Taldeko giro hori hoztu egin zen.

Dena den, merezi du eskiaren mundua ezagutzeak. Aukerarik izan ez duzuenok, anima zaitzete!

(Erredakzioan itzulia)



INA GARAGARZA



**JOSE ANGEL ZABALA**  
**URDAITEGIA**  
Berezitasunak:  
Bakilaua  
Txerrikiak  
Merkatu Plaza 33-34

**AULIA**  
**SAGARDOTEGIA**  
Legorreta ☎ 80 60 66



**Mandiola S.L. Egurrak**  
Domingo Arrizabalaga  
SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA  
Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42





## Joaten al zara eskiatzera?



### AMAGOIA MURUA

21 urte, ikaslea

Ez naiz jun inoiz, lagunak ez dia juten eta. Hala ere, egunen batian animauko nintzan, probatziarren batez ere.



### AURORA ANTON

38 urte, dekoratzailea

Sekula ez. Ez dut inolako zaletasunik kirolerako. Ezcaray-n ere izanda nago baina ez dut inoiz eskiatu. Oso hozbera eta alperra naiz.



### JESUS MARI CANALES

49 urte, administraria

Bai, mendia eta natura asko gustatzen zaizkidanez... Orain dela zortzi bat urte hasi nintzen. Normalean Astun-era joaten gara, jai-zubietan batez ere.



### AITOR LOIDI

28 urte, Udaltzaina

Urrinetik begira egon naiz baina ez naiz sekula ibili. Arriskua ikusten dot halako aldapak jeisteko, eta probatzekotan, fondoko eskia.



### ROSA LABRADOR

39 urte, etxekoandrea

Ez, ez naiz sekula izan eta ez dut inolako asmorik. Oztopo nagusia hotza da, ezin dut hotza jasan, bestela polita da.



### JAVIER ALONSO

49 urte, metal-arotza

Orain ez. Txikitatik eskiatzen dut, fondokoa, alpinoa eta trabesiakoa. Atzerrian Chamonix-en eta hemen Aralarren eta Pirineo osoan ibili naiz.

# Sonia Dantza Eskola



*Elgoibarren lehenengo aldiz!*

- Ballet klasikoa • Dantza kontenporaneo
- Mantenuko gimnasia • Espresio korporala

**INAUGURAZIOA:**  
**Otsailak 10,**  
**arratsaldeko 7etan**

Errosario kalea, 31 ☎ 74 38 39 / 10 18 37

# MIREN

arraindegia



Santa Ana  
74 34 49  
**ELGOIBAR**

## ■ Nekazarien ENBA sindikatuaren bilera

Gipuzkoako Euskal Nekazarien Batasuna sindikatuak, ENBAk, Arau Forala sortzeko asmotan, ondasunen transmisioari buruzko bilera egingo du hil honen 7an Kultur Etxean gaueko 9etatik aurrera. Asmoa gaiari buruz baserritarren iritzia eta ikuspuntua ezagutzeko da, ENBAk bultzatu nahi duen arauari buruz hitz egin eta eztabaidatzeko. Elgoibarko bileraren ostean, beste bat burutuko da Bergaran hilaren 9an. Hizlari gisa arituko dira ENBAko abokatuak, Pilar Zubiarrain eta EHU-UPVko irakaslea den Mikel Karrera. Herentzia edo ondasun transmisioekin arazoren bat edo kezka bat duten guztiak bilerara ager daitezten animatu nahi dituzte antolatzaileek.

## ■ San Lorentzokoak doaz lehenak Bolo Txapelketan

Banakako zein taldekako Elgoibarko I. Bolo Txapelketako sailkapenean lehen hiru eta lau postuak nahiko berdinduta daude, txirlo bateko edo biko aldearekin. Orain arte hiru tiraldi jokatu dira, lehen San Lorentzon, bigarrena San Migelen eta hirugarrena San Roken. Sailkapena horrela dago momentuz:  
Banaka:

- Jose Irusta (S. Migel) .....16 txirlo
- Justo Arriola (S. Lorentzo) .....15 txirlo
- Angel Ibarluzea (S. Migel) .....14 txirlo
- Esteban Arrillaga (S. Lor.) 11 txirlo

Taldea:

- San Lorentzo A .....45 txirlo
  - San Migel .....44 txirlo
  - San Pedro .....42 txirlo
  - San Roke A .....41 txirlo
- Azken tiraldia hilaren 11n izango da San Pedroko bolatokia. Final polita izango da ziurrenez, taldeak nahiko parekatuak daude eta.



**Holandako Emmen** Enpresariales Eskolako 3. eta 4. mailako ikasle talde bat IMHn kokatutako Gestio Eskolara bisita burutzen ari da egunotan. Egonaldiak irauten duen bitartean gure herriko egoera sozioekonomikoari buruzko azterketa egingo dute. Bildutako informazioarekin Holandako errealitate sozioekonomikoarekin konparatzen duen lana burutu beharko dute. Eskolako eginbeharrez gain, bestelako ekintzetarako betarik ere izango dute. Hitzaldiak entzun, inguruak ezagutu, Gernika, Azpeitia, Legazpi, Arantzazu..., kostaldeko hainbat herritara irteerak egingo dituzte, Zumaiara, Hondarribira, Donostiara... Euskal Herriko etnografia eta gune turistiko inportanteenak ikusteaz gain, Eroski, Mondragon Corporación Cooperativa eta Eibarko Tekniker ikerketa zentruak ere bisitatzeko aukera izango dute. Holandarrak datorren asteartera arte izango dira gure herrian.



**DEBABA** Udal Euskaltegiko 3. urratseko ikasleen bisita izan genuen BARRENen joan den ostiralean. Ostiralero etxean jasotzen duten aldizkaria lekutik bertatik ezagutzeko aukera izan zuten berau egiten dugunon eskutik. BARRENi buruzko jakinmina asetzeko lain azalpen entzun ondoren honako argazki hau atera genien oroigarri modura.

**Nathalia** Tele 5ko "El Trampolin" saioan ikusiko dugu datorren astean. Zein egunetan emango duten programa zehazteke dago oraindik, telebista kate espainiarrekoek programa egunez aldatzekotan baitabilta. Litekeena da hil honen 7an edo 9an izatea, gaueko 9,30etatik aurrera. Nathaliak programan izandako gorabeherak kontatu dizkigu eta berak esan bezala, ondo abestu arren ez zuen zorte handiegirik izan. "Canción española" atalean abestu zuen Nathaliaren lehiakidea, bigarren aldiz zen lehiaketara aurkezten zela eta beraz, puntuak jasotzerakoan harek izan zuen lehentasuna. Dena den, pozik dago Nathalia, kontuan izanda parte hartzeko bakarrik milaka gutunen artean 24 baino ez dituztela onartzen. Nathaliak inpresio ona sortu omen zuen Tele 5ko arduradunengan, "telebistako gala horietarako deituko nautela agindu didatelako".



## ■ 6NEMEN9ren maketa izan da DVko botatuena

6NEMEN9 talde egloibartarraren izen bereko maketa izan da Diario Vasco egunkariko Devorame gehigarrian irakurleen aldetik botu gehien jaso duena. Lehiaketa hau urtero egiten du egunkari donostiarrak, eta besteak beste, disko onena, talde onena, pertsonaia gorrotatuena eta antzerakoak aukeratzeko dira. Gogoratu 6NEMEN9 taldeak duela gutxi Euskadi Gazteak antolatutako maketa lehiaketa irabazi zuela.

## ■ HBren bilera hilaren 9an

Elgoibarko HB alderdiak bilera egingo du Kimetz elkartean hil honen 9an, osteguna. Aztertuko duten gaia "Oldartzen" txostena izango da, berna eztabaidari buruzkoa. Bilera arratsaldeko 7etan hasiko da.

# JUANA URRESTI "TXATIA" JANARIDENDA

*Kalitatezko jaki bila bazabiz, zatoz guregana!*

Otsailetik aurrera

**IGANDE GOIZEAN ZABALIK**

**9etatik 13etara**

*Eguneko ogia ere izango dugu!*



San Bartolome 12, ☎ 74 12 26 ELGOIBAR

Ramon Uriguen:

## "Urte askuan koplari izandako lagunak omenduko ditugu"

"Txiki txikitatik eta nere aita zenaren pausuak jarraituz gustua eta afiziua hartu nion koplari izateari. Orain lagako banu pena hartuko nuke. Guk koplariok kezka bakar bat daukagu: urtero urtero eskoletan zehar jendea eskatzen dogu gero eta gehiago izateko, ez diren etorriko beldur gaude eta.

Neska gazteak etortzen dira gurekin, bai musiko moduan eta bai dirua batzera ere, baina emakumeetat ere badago lekurik. Zenbat eta jende gehiago etorri hobea". Hauexek dira Ramonek elkarrizketa hasi orduko, boteprontoan bota dituen hitzak. Ea bere nahiak betetzen diren!

- Zer esanahi du zuretzat Santa Ageda egunak?

- Egun zoragarri bat. Sekula galdu behar ez den ohitura bat. Gehienbat aitarengandik ikasi nuen, berak bertsoan egiten zuen (neri asko gustatzen jataz bertsoak). Aitxari segitziarren hasi nitzan, gero gustau egin jatan, hain gauza ederra nola dan... 54 urte baino gehixao daruaz, 66 beteko ditut laister eta txiki-txikitatik hasi nintzen.

- Orduan bizitza guztia daramazu koplari moduan, ez?

- Bai, betidanik. Beti zerbait egiten; hau egin behar dala, bestia egin behar dala, eta gero, bada-kizu, aitxaren eragina. Semia dakat orain bertsoan, ahalegintzen da behintzat, gustatzen jako.

- Beraz, aita izan da zeu koplari izatearen arrazoirik nagusia.

- Bai, hala da. Ni txikitatik hasi nintzen aitari segika, gustua hartu nion, afiziua. Lagako banu, akabo!

- Elgoibartarrok diru asko ematen al dugu?

- Segun. Igez ehun da piku mila pezeta jaso genduzen, tamalez gauza asko pagatu behar izaten dira



"Lehen auzo guztietara oinez joaten ginen, orain berriz, uruti dauden auzoetara autobusez joaten gara".

eta dirua erraz joaten da: bazkaria, beti babak jaten diaz, hamarretakua (bokadilua), ardaa, kopia...

- Indarrik galdu al du ohiturak?

- Ez, hemen Elgoibarren behintzat ez. Arrasaten ere indar asko dauka eta Eibarren orain hasi dira egiten Udaletxeko lagun batzuen artean. Eguna nahiko neketsua izaten da buelta galanta egiten dou eta, baina oso gustura. Lehenago lan orduak gal-

tzen genituen, Santa Ageda tokatzen zen egunean ospatzen genuelako, gaur egun horregatik ospatzen da zapatuan.

- Koplak kantatzeaz gain, zein ekitaldi ospatzen dituzue?

- Programa ofiziala betikoa da: lehenengo hamarretakoa (bokadilo bat), gero koplak abestuz herriari bueltia eta ondo bukatzeko "Baltasar" elkartian bazkari eder bat, noski, ohitura den bezala

babak janez. Aurten piska bat berezixa da eguna betidanik koplari izan diren lagun laguni eskainiko zaielako. Lau lagunak hauek dira Patxi Iriondo, Felix Juaristi, Rafael Areitioaurtena eta Jose Kruzelegi. Zorionak denei.

- Entsaiatu beharrik egoten al da?

- Bai, bi egun izaten dira eta merkatu plazan egiten ditugu. Gehienok badakizkigu koplak baina beti egoten da pertsona berriren bat, eta klaro, musikuekin ere entsaitu behar da. Bai, beharrezkoa da.

- Ez al zara inoiz zure aita bezala bertsolari izatera ausartu?

- Inoiz bai. Santa Ageda egunean eta kopletan gabizela behin edo behin urtetzen jataz. Kalian zehar guazentian ez, baina adibidez, Olaso aldera joaten geranian bai. Aitxak kantatzen zituanak gogoratzen ditut eta ni ere ausartzen naiz. Hemendik ohar bat luzatuko nioke Elgoibarko jende guztiari: gurekin kalera irtetzera ausartzeko, oso ondo pasatzen baitgu eta, gainera, zenbat eta jende gehixao, hobea.

KOLDO GALDONA



## Landareak sartzeko garaia iritsi dela igarri zen larunbateko ferian

**L**andarez betea agertu zen joan den zapatuko feria, 1995eko lehenengo feria. Frutalak, piñua, edota edozein loradun landare landatzeko garaia hasi da. Urtarrila eta martxo bitartean omen da sasoirik egokiena. Saltzaile ugari zegoen, besteak beste, limone-roak, laranjak, kiwia edo exotikoagoa ere baden nispero japoniarra saltzen. Eguzki artean noizean behin euriak jotzen zuen, halere, ohizko bisitanteek ez zuten kale egin urtarrileko baserriarren ferian. Azken ferian, aspaldian ikusi izan den ganadurik ugariena egon zen, ugaria



eta kalidade onekoa, gainera, asko saldu zen eta. Jakin dugunez, Burgoseko Villasana de Mena herritik kamioi

bat etorri zen eta bertan, Elgoibarko ferian erositako hiru behi eta bi txahal eraman zituzten. Ez da gutxi!



*Carmen Gacetabeitia*  
Elorriokoa

- **Zein landare saltzen duzu?** - Frutalak, laranjak, limoiak, pinue, lora batzuk...
- **Garai aproposa da hau landatzeko, ez?** - Bai, hemendik eta martira arte.
- **Nola hazten dituzue landareak?** - Abonue botatzeieue, kinte kintietan, lehenengo urtietan ez, baina gero bai.
- **Mamorruen kontra?** - Samurrik ez dago ezer.
- **Lurrari on egiten dion landaririk?** - Pinue ez dabe gure gaur egunien sartzie, haritz amerikane ta bertako pague gura daue gehixao baina pinue bizkorren urtetzen dana da eta gehixen saltzen da, gero etekina ere be-

rak emoten dau eta.

- **Prezioak?** - Frutala 450 pta, kiwixe 1200 pta, naranjak 1200-2000pta, nispero japonesa 1500 eta lorak, segun ze klase dan, 1000 edo 1500.

- **Naranja edonon sartu al daiteke?** - Ez, eguzki begixa bihar dau eta nortia gordeta, kostaldian asko saltzen da, barnekaldian ez.

- **Diferentiena?** - Nispero japonesa izango da.

- **Zenbat denbora behar du frutalak heltzeko?** - Frutia emoteko hiru bat urte biher dauez.

- **Gustuko landare bat?** - Baikoitza bere sasoiari danak die onak.

# Kooperatibaren bateko kide al zara?

## Nekazarien kooperatibak



**XX.** mendearen hasieran, Leon XIII. Aita Santuak enziklika bat atera zuen. Bertan, kooperatibismoaren bidea jarraitzea aholkatzen zen. Mezu honek izugarriko eragina izan zuen eta elizaren babesean eraiki ziren lehen kooperatibak.

Ingalaterran sortu zen lehenengoa eta hura oinarritzat hartuz, beste asko eraiki ziren toki askotan, bai eta Euskal Herrian ere. Ingalaterran sortu zen kooperatiba komertziala zen. Beranduxeago nekazal kooperatibak jaio ziren. Izan ere, baserritarrak konturatu ziren hainbat eta hainbat produktu erosterakoan, bai ongariak, bai pen-tsua bai eta lehengai edota tresneria ere, gehiegikeriak egiten zitzaizkiela prezio aldetik. Hori dela eta, nekazariak bildu eta kooperatibak sortzea pentsatu zuten beraien babeserako, guztien artean erosiz produktuak merkeago lortu asmoz, kontsumitzen zuten jeneroa beraiek kontrolatu asmoz.

Leon XIII.ak jarri zuen baldintzetariko bat kooperatibak apolitikoak izatea zen. Horri esker, administrazioaren eragina asko murriztu izan da beti.

Gaur egun 23 kooperatiba inguru daude Gipuzkoan. Horiatariko bat Itziarren kokatua dagoen INEKO da, 1960. urtean sortua. INEKO, beste 11 kooperatibekin batera, SAKE izeneko elkartearen barruan dago. SAKE elkarte ekonomikoa da eta honen bidez, partaide diren kooperatiben arteko harremana sendoagoa da, elkartrukea dago eta abantailak ere handiagoak dira guztien arteko elkarlana egoterakoan.

Gaur egun, bazkideak produktu guztiak merkeago izateaz gain, erabakiak hartzeko orduan ere bere hitza azaltzeko aukera du, juntetan parte har dezake. Horrezaz gain, kooperatibek zerga gutxiago ordaintzen dute eta horren truke, Ekintza Soziala (Obra Social) delakoa antolatzen dute, bazkideentzako ikastaroak, ibilaldiak eta abar.

Oraindik ere bide asko egiteko dagoen arren, aurrerapauso handiak eman dira eta gero eta baserritar gehiago da kooperatiben bazkide.



**Inazio Pagoaga, 53 urte**  
**Apategi zahar (Mutriku)**

Ez, zela plantazio eta landarien asuntuan gabizen... Oin ari dia asoziazio bat antolatzen edo landarien kontuekin. Esaten dabe dirulaguntzia jasotzeko laguntza izen leikela.

**Juan Gandiaga, 67 urte**  
**Ibarreta (Berriatua)**

Neu landare saltzailia naiz eta Bizkaian ez dago guretzat kooperatibarik. Kooperatibak onak die, zenbat eta jende gehixao orduan eta indar gehixao. Laguntasunak asko eitzen dau.



**Juan Mari Agirre, 58 urte**  
**Kurutzalei (San Pedro)**

Itziariko kooperatiban sartuta nago, Inekon. Bentajia dago ze medikamento asuntuan, erremintxak eta pentsuak ere, beti merkio dauzkazu. Gainera oin herrixan zabaldu dabe eta mesedia guretzat.



**Ramon Peñagarikano, 57 urte**  
**Artzain (Zumaia)**

Ez nago sartuta ze ointxe laster lana lagatzeko garaia dakat. Kooperatiban laguntza gehixao lortzen da baina horretarako gaztia izan behar da, aurrera ateratzeko. Baserrixan segitzekotan, hobe kooperatiban sartuta.



**Ramon Loiti, 70 urte**  
**Andikoetxe (Angiozar)**

Ni jubilaua naiz eta ganadua ere gitxi dakat, kapritxora. Oñatin bazen Lana izeneko kooperatiba bat baina geizki urten zan. Gainera nik fabrikian ere lan in dot eta hor aldia dago, baserritik bizi danak laguntzia bihar dau.



# AITZ-BIZKAR BASERRIA

**S**igman gora joanda, San Pedro auzoan kokatzen da Aitz-Bizkar Goikoa baserria, baserri itxura gutxi badu ere. Aranbarritarren makina bat belaunaldi bizi izan dira bertan. Gaur egun, Jose Mari, emazte Marikontxi eta bi alaba, Ana Mari eta Maria Pilar dira Aitz-Bizkar baserriko bizilagunak, herrian aski ezagunak direnak izen bereko bodega izan baitzuten Errosario kalean. Aranberitarrak baserriatik bizi ez diren arren, mantentzen dute guraseongandik jasotako ohiturarik, sagardoarena, alegia.



Aitz Bizkar baserria haitz baten gainean dago eraikia.

Haitzen gainean eraikia dagoela dirudi baserriak, goitik ikusita, haitza eta teilatua baino ez dira ikusten. Hara hor izenaren nondik norakoa, Aitz-Bizkar.

Garai batean ortutik eta sagardoa saltzetik bizi omen ziren, gaur egun beraientzat baino egiten ez duten arren. Sagastirik ez dute baina 3.000 kilo sagar erosi eta urtero sagardoa egiteari ekiten dio Jose Marik. 60 kilo bakoitzeko 45 litro sagardo ateratzen dira, atera, beraz, 3.000 kilo sagar izanik zenbat litro sagardo lortuko ote den. Urte osoan zehar etxean edateko adina bai eta senide zein lagunei oparitzeko beste ere. Gaur egun ez dute saltzen. Makina elektrikorik badute baina eskuz egitea nahiago, Jose Marik esan digunez, “elektrikua lan gitxio da, komoduaua eta 40.000 botila itxen genduazenen horrekin moldatzen ginan, eta besteren bat izango bagenu, hobe. Baina denboria dauanian eta kantidade haundiegixak egiten ez ditxudanez, nahixao izaten dot izerdi piskat aterata itxia. Sagarra matxakatu, tinara bota eta estutu”, horiek omen dira sagardoa egiteko lehen pausuak. Barrikan denbora bat laga behar da eta ondoren, “trasmudatu

egiten da, garbi-txu, txanpanakin itxen dan bezela, beheko posua lagatzen jago eta garbixa atera”. Jose Marik azaldu digunez, “sagarduari mostua botatzen jago piskat garbit-

zeco, bizitzeko eta gero fermentatzen laga bihar da gozotasuna joateko. Densimetro batekin neurtzen da azukria eta kontuz ibili bihar da gehixegi badaka, gozuegi badago, kortxuak errebentau itxen dau berotasunakin. Gainera sagarduak mikesatuna eduki bihar dau”. Zenbat eta sagar mota gehiago nahastu, orduan eta hobe omen da sagardoa.

## Sagardotegiak

Ingurune honetan industria nagusitu izan den bezala, Tolosa eta Donostialde horretan sagardoa egin izan da nabarmen. Hori dela eta, alde hartan kokatzen dira sagardotegirik gehienak. Orain, garaia izanik, Jose Marik ere ba omen du asmoa sagardotegiren batera joateko, “bakailao eta txuletia sagardotan bustitzeko”. Esan digunez, garai batean, inguruko herrietatik joaten omen zen jendea Aitz-Bizkar baserrira, sagardoa dastatu eta erostera, “janaririk ez gendun ematen baina ‘sagardotegi’ tipo bat zala esan leike, koardrilak etortzen zian, sagardoa edan eta arratsaldia pasatzerara”. Sagardoa basora distantzia batetik bota behar da, “apurtu” egin behar da, “bitsa atera dadin”.

- **AUZOA:** San Pedro.
- **SORRERA:** Ez dago data zehatzik.
- **BIZILAGUNAK:** Jose Mari Aranbarri, 49 urte; Marikontxi Elizburu, 46 urte; Ana Mari, 26 urte eta Maria Pilar, 23 urte.
- **LUR HEDADURA:** 13 hektarea.
- **ANIMALIAK:** Bat ere ez.
- **PRODUKTUAK:** Etxerako baratza eta sagardoa.
- **BIZIMODUA:** Kaletik.

Jose Marik ez luke ezerren truke aldatuko baserriko bizitza. “Hamar hilabete egin nitxun justu justu kalia bizitzen, etxia egin genduanian. Eta nahikua izan zan haura aguantatzia”. Familiaren tradizioa jarraitu du Jose Marik, aitik irakatsi zion sagardoa egiten eta berak ohiturari eutsi dio, “medikuaren semia beti mediku”. Ez urik ez ardorik, ez eta Gabon garaian ere, “nik sagardua edaten dot beti, bazkaltzeko, afaltzeko... Beti. Tamainan hartuta ez dago sagardua bezelakorik!”. Bukatzeko, hara hona aitortu diguna, “baserrian jaio eta hankak aurretik urtengo naiz hemendik”.

# Asier Albizu:

## "Baserritarren profesionaltasunak produktuaren kalitatea igo du"

**A**sier Albizu eibartarra da eta 26 urte ditu. 1991etik DEBEMEN elkarteko gerentea da. 1992. urtetik feria ezberdinetako lehiaketatan epaimahaikide izan da; Eibarko San Andres, Elgoibarko Gabon Zahar eta Debako Urte Berri ferietan, hain zuzen. Fruitu eta barazkien lehiaketatan duen esperientzia ikusita, esan digunez, iazko Gabon Zahar Ferian, berak ikusi duen kalitaterik handiena aurkeztu omen zuten baserritarren produktuek. Asierrekin izan gara. Hona kontatu diguna.

- **Kontaiguzu nola erabakitzen dituzuen saridunak.**

- Postu ezberdinetako produktuen kalitatea eta barrietatea ikusiz, puntuazio bat ematen diegu. Gainera, gero eta garrantzi gehiago ematen diogu presentazioari. Azken urteotan presentazioa asko hobetu da, bai eta kalitatea zein barrietatea ere.

- **Adibidez?**

- Aurten patata mota berri bat ekarri dute, gozoagoa. Egosteko eta entsaladan jateko oso ona da, jatetxetan gero eta gehiago erabiltzen da.

- **Kalitatea hain ona izanik ez da erraza izango sariak banatzea, ez?**

- Ez, ez da erreza. Guztiek merezi dute saria bai-

na denei ezin eman.

- **Jendea baserritik apenas bizi den arren, kalitateak gora egin du.**

- Bai, hala da. Jende gutxi egon arren dedikazioa handiagoa da, profesionaltasun gehiago dago eta teknologia zein haziak ere hobetzen doaz.

- **Zer moduz gabiltza elgoibartarrak?**

- Oso ondo. Zazpi postu geratu ziren finalista bezala eta horien artean aurkeztu ziren hiru elgoibartarrak zeuden. Zabaleta baserrikoak, adibidez, Donostiako Santo Tomas ferian irabazi zuen eta Txillarrek Eibarren eta Deban. Potentzial ona dago.

- **Euri eta guzti, demaseko arrakasta izan zuen Gabon Zahar feriak.**



- Bai, Elgoibarren tradizioa dago, izen bat dauka eta Gabon Zahar feriaz gain, hileroko beste bat egiten da, baserritarren topagunea da, nolabait. Bestalde, Agustin Irusta baserritarren zinegotziak ere izugarritzko marketing lana egiten du kanpoan, oso ondo saltzen du Elgoibar-ko ferien irudia.

- **Zertarako antolatzen dira horrelako feriak?**

- Alde batetik herriari bizi-tasun ezberdin bat ematen diolako. Bestalde, baserritarrak etortzeko egun bat da, beraien eguna eta, gainera, aukera ezin hobea da denok ezagutu dezagun gure baserrietatik ateratzen den produktua.

- **Zer suposatzen du ba-**

**serritarrarentzat lehiaketa bat irabazteak?**

- Oso garrantzitsua da. Feriara etortzen diren gehienak baserritik bizi dira eta sari bat irabazteak prestigio bat, ematen die, izen bat eta horrek, logikoki, etekin bat dakar, beren produktuak kalitate seilu bat duelako besteen aurrean.

- **Ezagutzen al dugu bertako produktua?**

- Gero eta gehiago. Elgoibarren bertan Zeleta baserriak erakutsi zuen bere produktuak Euskal Baserri seilua zeramala edota Pello Rubiok Biolurren ezau-garria. Hemen produktu ona dago eta jendea-ri jakin arazi behar zaio, eskatu dezan.

### SAGARRONDOA

■ **FAMILIA:** *Rosacea*.

■ **ZOLUA ETA KLIMA:** Lur sakona eta ongi drainatua. Klima freskoa komeni zaio eta neguko letargia behar dute. Lorakuntzan hasi ondoren ez dute izozte berantiarrik onartzen.

■ **LORAKUNTZA:** Martxoaren bukaeran eta maiatzaren hasieran. Loratzen denetik heltzen den arte 120-180 egun

igarotzen dira.

■ **MOZKETA:** Zuhaitzaren lehen urteetan oso garrantzitsua da mozketak, zuhaitzari forma emateko.

■ **BESTELAKOAK:** Landatzen ditugun sagarrondoak espezie bereko bi barrietarekin eginiko injertoak dira. Amerikarrak edo europarrak izan daitezke.





## Jose Mari Azpeleta

"Azpeleta" elektradendakoa



● **Noiztik dago Azpeleta**

**Elgoibarren?**

▶ Duela 47 urte hasi ginen, egunetik egunera gure betiko bezeroei eskaintzarik hobereana ematen saiatuz.

● **Pertsona positiboa ala negatiboa zara?** ▶ Positiboa.

● **Goizero pilak kargatzeko modua?** ▶ Gosari on batekin.

● **Zein elektragailu erosiko zenuke lehena?**

▶ Garbigailua.

● **Bizitzako shock-ik gogorrena?** ▶ Nahigabe asko izan ditut baina gogorrena beti gertuko norbait hiltzea da.

● **Pertsona elektrikoa zara?** ▶ Elektrikoa eta elektrizatailea.

● **Etxean gas naturala ala elektrizitatea?**

▶ Elektrizitatea. Ez guk jartzen dugulako baizik eta hobereana eta seguruen delako, gas naturala merkeagoa izan arren.

● **Nola deskargatzen zara?** ▶ Jaten eta lo egiten.

● **Nora joango zinateke oportetara?** ▶ Hondartza batera.

● **Zer nolako lana egiten duzu?**

▶ Elektrizista lanak, planuak, aurrekontuak, instalazioak eta azkenean egindako lanarengatik dirua kobratzen ahalegintzen naiz.

● **Lana etxeetan ala lantegietan?**

▶ Etxe partikularretan, lantegietan ez ordaintzeko arriskua baitago eta galerak handiak izan daitezke.

● **Herriko jaiak ala Gabonak?** ▶ Herriko jaiak.

● **Jasotzerako orduan, dirua ala txekea?**

▶ Berdin dio ordaintzen didaten bitartean.

● **Asteko egun bat?** ▶ Astelehena, deskantsatuta nagoelako.

● **Hozkailua ala berogailua?** ▶ Udan hozkailua eta neguan berogailua.

● **Argitasuna ala iluntasuna?** ▶ Argitasuna.

● **Zer behar da elektrizista on bat izateko?**

▶ Atsegina, langilea, justua eta itxuraz ondo jantzita joatea, gaur egun itxurari garrantzi handia ematen baitzaio.

● **Baduzu kandelarik argia joaten denerako?** ▶ Bai.

● **Gizarte honetan funtzionatzen al dute entxufeek?**

▶ Inoiz baino gehiago.

● **Horrelakorik salgai?** ▶ Ez, guk bestelakoak saltzen ditugu.

MAITE IRIONDO

## BASARRIZ BASARRI KOPLATAN

**DOINUA:**

santa Agedako doinua

Elgoibarren kalia gorde zan  
Santa eske ohitxuria.

Baña baserrixetan etzeben  
gogoratzen itxuria.

Ohitxurak hiltzen lagatzia  
danez hain gauza garbia;  
talde batek hartu dau beregain  
berpizteko arduria.

Egualdi eskasa egin arren,  
elurra ala eurixa.

Ezta faltako soñu, pandero  
kantu ta trikitixa.

Etxe barrura sartzia da  
merezitxako sarixa.

Zuen emana izan dadilla  
koplak bezain ugarixa.



JON BARANDIARAN



*Gozogintzaren  
eskulangileak  
gara: Pastelak,  
Tartak, Izoziak  
Bonboiak.*

Barandiaran 34-35 Tel: 74 03 45



**EGONDO, s.a.l.**

METALEZKO ERAIKUNTZAK  
KALDERERIA LANAK OROKORREAN

Deba kalea 4-7 ☎ 74 34 08-04 FAX 74 34 08

## Euskarari buruzko ordenantzak onartu ziren pasa den ostiraleko udal plenoan

Joan den ostiralean Udal Plenoa izan zen. Bertan, besteak beste, Elgoibar, Sahara Herrien Laguntzarako Euskal Federazioan sartzea erabaki zen, alderdi guztiek aho batez onartu eta gero. Bigarren puntua euskararen ordenantzei buruzkoa izan zen. 1994ko urriaren 17an onartu ziren ordenantzei AEKk jarri zien emendakina ez zen onartu.



■ ■ Jose Inazio Elkoro-Iribe Saharako Daura herrian izan zen ekainaren 25ean.

**H**ona hemen emendakina: "Herriko langabetu, ikasle eta jubilatuek guztiek euskalduntze, alfabetatze eta EGA ikastaroen matrikula ordaintzerakoan Udalak ematen duen dirulaguntza izango dute. Langabetu, ikasle eta jubilatuek aukeratutako legezko herriko edozein euskaltegitan".

Juan Mari Eguren, Euskara Bartzordeko lehendakariaren hitzetan, "herritarren aukera da euskaltegi bat edo beste bat hautatzea. Euskaltegi bakoitzak bere estatutuak ditu eta Elgoibarren badago Udal Euskaltegi

bat". Emendakinaren botazioan, HBk alde botatu zuen (4 boto), PSOE-EE abstenitu egin zen (2 boto) eta EAJ-PNVk eta EAK kontra egin zuten (8 boto). Ondoren, ordenantzak bere osotasunean botatu ziren. EAJ-PNVk eta EAK alde botatu zuten (8 botu) eta PSOE-EE eta HB abstenitu egin ziren (6 botu). **Zergen igoera**

Eskakizun eta galderen atalean Mertxe Mujikak hartu zuen hitza, Haziendako lehendakariak. Urriaren 27an onartu zen zergen igoeraren aurrean herritarrek aurkeztu zituzten

1068 sinadurak zirela eta erantzun nahi izan zuen. Bere esanetan, "herritarrek aurkeztutako idatzia ez da batere garbia. Batetik, ura ez da 5.000 pta igotzen. Iaz, uraren, zaborren eta alkatarilen zerbitzuak 4.420 ptako kostua zeukan eta aurten 5.060 pta kostatuko da, 640 pta gehiago. Bestalde, jarraitu zuen, aipatzekoa da Elgoibar Uraren Kontsorzioan sartu dela. Kalitate eta kondiziorik onenak jarri nahi dira urari dagokionean eta horrek, logikoki, inbertsio bat suposatzen du"

### HBri ETaren ingurunetik aldentzea eskatu zitzaion

Gillermo Garate Kulturako lehendakariak, berriz, idatzi bat irakurri zuen PNV, PSOE-EE eta EAren izenean HBri eskatuz, "ETAren ingurunetik aldentuz, bere ideiak bide politikoetatik defenda ditzan eta ez biolentziatik, berriz ere Gregorio Ordoñezen bezalako heriotzak gerta ez daitezen". HBko zinegotzia den Jorge Hernandok erantzun zion idatziari: "Ordoñezen heriotza ez zaizue axola eta torturatuen eta asesinatuen heriotza babes-ten duzue". PSOE, "hiltzaileak eta lapur profesionalak" deitu eta "GALa diseinatu eta montatzeaz" salatu zuten. Plenoa amaitu aurretik, bi gaztek pankarta bat zabaldu zuten. Bertan, "Elkoro, eta GALari buruz zer diozu?" irakur zitekeen. Elkoro-Iribe alkateak pankarta kentzeko eskatu zien, bestela plenoa bertan behera utziko zuela esanaz. Gazteek pankarta erretiratu zuten.

**ZERAMIKAK**

Erakusketa eta bulegoa:  
Antonio Arrillaga, 6-8  
behea  
83 Postakutxa  
Tel. 74 33 44 - 74 06 92  
Fax 74 37 11

Biltegia:  
Arregitorre, 10 - 14 behe  
Tel. 74 20 38 - 74 23 71  
20870 - ELGOIBAR  
Gipuzkoa

*Kafetegia*

## Santa Klarako alboetako erretabloak (I)

- Aldare nagusiko erretabloa 1755eko maiatzaren 6an bukatu zuten. 1716ko martxoaren 12an moja klaratarrek Frantzisko Ibero arkitektoari alboetako bi erretabloen diseinua egiteko eskatu zien.
- Frantzisko Antonio Ibero (1725-1-8; 1795-5-9) Azpeitian jaio zen. Bere gurasoak Inazio Ibero eta M. Antonia Odriozola izan ziren eta Frantzisko bost seme-alabetatik hirugarrena izan zen. M. Ignacia Lekuonarekin ezkondu zen eta bi seme izan zituen, Manuel apaiza eta Ignacio abokatua.
- Frantziskoren aita ospe handiko arkitektoa izan zen. Elgoibarren Udaletxeko jarlekua diseinatu zuen 1744an, San Bartolome elizako dorrea 1748an eta San Frantzisko komentuko elizako Santa Ana kaperako erretabloaren diseinua 1761ean.
- Frantziskok 1746an ekin zion arkitekto lanari, 21 urte zituenean. Aizarnako elizako alboetako bi erretablo diseinatu zituen. Azken lana, berriz, 1793an egin zuen, Elgoibarko San Bartolome parrokiako erretablo nagusiko tabernakulo edo

sagrarioa tasatuz.

- Elgoibarren ondoko arte lanetan hartu zuen parte, besteak beste: Parrokiako dorrearen diseinu aldaketa (1750), Plaza eta frontoiko birmoldapena (1751), Udaletxeko armarrria eta apaingarriak (1753), San Bartolome parrokiako dorrearen, gangen eta zoluen diseinua (1757), Santa Klara komentuko elizako alboetako erretabloak (1761), Parrokiako klaustroen, gangen eta arkuen diseinua (1763), Parrokiako sakristia eta teilatuen frontisa (1769)...
- Frantzisko bere garaiko arazoetat arduratu zen. Adibidez, Azkoitian sortu zen Euskal Herriko Adiskideen Elkartearen koinatu Javier Ignacio Etxeberriarekin batera, 2. batzordean, "Arte erabilgarriak", bere lankidetzara eskaini zuen zenbait lanetan.
- 1793an bere herriko, Azpeitiako alkate izendatu zuten.

PELLO ARRIETA



## Jose Juaristi

(1921-1992)




- 1921eko urtarrilaren 24ean jaioa.
- Pilar ikastetxean egin zituen oinarrizko ikasketak eta ondoren Armeria eskolan ibili zen. Juaristi Hns. enpresan egin zuen lan.
- Antzerkia, musika... arte eszenikoekin zerikusia zuen edozer iharduera gogoko zuen. Euskal dantzen alorrean, ezpatadantzaria izandakoa.
- *Deia*-ko korrespontsala izan zen eta literatur sari bat jaso zuen.
- Kultur arloan aritzeaz gain, kirol munduan ere bazebilen, futbol zaletu porrokatua baitzen. Zaletasunen artean aipagarria da irakurketarako zuen grina.
- Kultur iharduerean artean, 1958. urteko urriaren 3an, Odeon antzokian taularatu zen Jesus Guridi musikari euskaldunaren "El caserio" zarzuela ezagunean zuzendari lanetan jardun zuen. Obra honetan elgoibartar mordo batek hartu zuen parte.
- Kutturaren alde lan ugari egindako Pako Juaristiren anaia zen.
- 1992. urteko irailaren 18an hil zen.

**gr**

DEBA KALEA 12  
TEL.: 74 42 23  
20870 ELGOIBAR

**ERREFORMAK  
FATXADAK ETA TEILATUAK  
OBRAK OROKORREAN**



## MOTZAK

### Eski alpino ikastaroa

Ibai Gimnasioaren eskutik Formigalera irteera antolatu da eski alpinoa ikasteko hil honetako 18a eta 19a bitartean. Joan nahi duenak bi zenbaki hauetara dei dezake: 74 07 93/74 27 06. Prezioa 11.000 ptakoa da, lo egitea, bidaia, erremontek, ikastaroa eta ekipoa prezioaren barruan daudelarik.

### Fondoko eski ikastaroa

Morkaikok fondoko eski ikastaroa antolatu du hil honen 11 eta 12a bitartean Belaguako eski pistetan. Ikastaroan jardun gabe, eskiatzera soilik joan nahi duenak horretarako aukera izango du. Irteeraren zenbatekoa 9.000 ptakoa da bazkideentzat eta 10.000 pta bazkide ez direnentzat. Ikastarorik gabeko prezioak berriz, 7.500 bazkideentzat eta 8.500 bazkide ez direnentzat. Zenbatekoaren barruan sartzen da autobusa, larunbateko afaria, logela, igandeko gosaria, pistetara sarrera eta eskien alojera. Plazak murriztuak direnez, lehenbaitlehen deitu 74 02 97ra.

### Mintxeta taldekoen emaitzak

Joan den astebukaeran Mintxeta Atletismo taldeko 35 hurrek Idiazabalgo krosean parte hartu zuten honako emaitza hauek lortuz: Ana Etxaniz lehen eta Alaitz Merino hirugarren benjaminetan, Egoitz Martinez bigarren eta Mireia Huidobro hirugarren alebinetan eta infantiletan Gorka Sanchez lehen eta Julia Quintana bigarren.



Javier Estevez:

### "Futbol amerikarra eta rugbya ezberdinak dira"

■ **Rugby-a laga berri duzu. Zer dela eta?** - Klaseak arratsaldez ditudanez ezin nuen entrenamenduetara joan, eta hartara, hobe lagatzea.

■ **Noiz hasi zinen?** - 92an, hiru denboraldi egin ditut Eibar Rugby Taldean.

■ **Nola hasi zinen rugbyan?** - Klasekoek Eibarren talde bat zegoela entzun zuten eta apuntatu egin ziren. Hurrengo entrenamentura neu ere joan nintzen.

■ **Zein da zure lana taldean?** - Ekipoan bi talde daude, bata aurrelariena, gorputzez astunenak eta handienak direnak, eta hiru laurdenak deitzen direnak, hauek baloia hartu eta korrika egiten dute, arinenak dira. Hauek ez dira "melé" deitzen direnetan egoten. Ni talde honetan nago.

■ **Zer da "melé" bat?** - Bi ekipoak biltzen direnean borroka antzeko batean, falta batean esaterako. Baloia hanka artetik ateratzea lortu behar da eta taldeko hiru laurdenetako bati pasatu.

■ **Topikoak dio kirol gogorra dela.** - Ez dut uste horrela denik. Agian kanpotik gogor xamarra ikusten da baina behin jokatzen hastean konturatzen zara ez dela horrela. Kontaktuko kirola delako da hori.

■ **Ondo babestua joatea funtsezkoa al da?** - Ez, rugbyan ez da babesik eramaten, hori futbol amerikarra da. Jendeak ez ditu futbol amerikarra eta rugbya bereizten.



Rugbya European eta Australian jokatzen da. Rugbyan baloia haundixeagoa da eta babesba ahoan eta batzuetan orkatiletan bakarrik eramaten dira.

■ **Lesioak beste kiroletan baino gehiago izaten dira?** - Beroketak gogor xamar egiten dira lesio gutxiago izateko baina hala ere, gertatzen dira. Elgoibartar batzuek lesioengatik laga behar izan dute rugbya, baina nik adibidez ez dut lesiorik eduki hiru urtean. Bost mutil hasi ginen rugbyan, gero Maider Elustondo hasi zen eta orain bera bakarrik geratzen da.

■ **Zer moduzko taldea da Eibar-koa?** - Kadeteetan irabazle izan ginen. Gero federatu ginenean, jubenilen lehen urtean gaizki xamar ibili ginen. Jubeniletako bigarren urtean ia Espainiko txapelketarako sailkatu ginen eta azken denboraldian seniorrekin hasi ginen.

■ **Noizko rugbya Elgoibarren?** - Ibili ginen bilerak egiten eta Udalarekin harremanetan. Zelai bat egiteaz ere hitz egin zen baina azkenean ez zen ezer atera.

- Adina: 19.
- Asteko egun bat? Ostirala.
- Beste kirolik? Rugbya soilik.
- Krosera joango zara?



Urtarrilaren 24an hil zen FELIZIANA ARTETXE EGIAREN ahaideok, ESKERRAK eman nahi dizkizuegu haren hiletara joan zinetenoi, samin agurrak bidali eta une latz honetan lagun izan zaituztegun guztioi.



**K  
A  
R  
K  
I  
S**



**JOKALARIAK:** Zutik ezkerretik eskumara: Carlos Agustin Ramirez, Jose Antonio Rico, Eusebio Duque, Victor Morales, Oscar Canabal, Roberto Arrizabalaga eta Juan Carlos Fernandez. Eserita: Ignacio Javier Garcia, Angel Luis Bermudez, Juan Aguilar, Antonio Galeano, Oscar Diez, Oscar Muñoz, Jose Luis Gonzalez eta Jose Luis Toledano.

**EKIPOKERIAK**

- **IZENA:** Karkis.
- **ZERGATIK?** Karkizano gainak izen hori dauka eta handik hartuta dago. Auzoko kuadrila batek Karkis izena zeukan eta gero futbitoan hastean izen berdina hartu genuen.
- **SORRERA:** 1990. urte ingurua.
- **AURTENGO ASMOAK:** Liga irabazi ahal bada, behintzat irabazten saiatu. Momentuz bigarren goaz eta aukerak badauzkagula ikusten dugu.
- **B/B ADINA:** 21-22 urte.
- **LORPENAK:** Bi aldiz laugarren geratu gara Ligan eta Kopako final erdietara behin heldu gara. 1994an Gabonetako Kuadrila Arteko Txapelketan garaile izan gara.

**A Taldea**

	PUNTUAK	GOLAK
1. G. GARCIA	17	50
2. D.T. VETERANS	15	24
3. KING-KONG	15	23
4. KOSAKOS	13	1
5. SANROKETARRA	10	6
6. LA MAXIA	10	-4
7. ORAIKO CAFE	8	-14
8. AMETSA	7	4
9. RUA	7	-6
10. D. KALIMOTXO	7	-17
11. ALDAVAS	6	-20
12. HARITZA	5	-3
13. REPLASTISA	0	-44

**GOLAK**

**GOLEGILERIK ONENA**

- J. Romero (G. Garcia) 20 gol
- Mancebo (Mimox) 16 gol
- Gonzalez (Karkis) 15 gol
- Santolaya (King-Kong) 13 gol
- C. Conde (Pedruskos) 13 gol

**GOL GUTXIEN JASO DUEN ATEZAINA**

- Iglesias (G. Garcia) 7 gol
- Agirrezabal (Dream Team) 11 gol
- Galarraga (Mimox) 12 gol
- Muñoz (Karkis) 12 gol
- Diaz (King-Kong) 14 gol

**B Taldea**

	PUNTUAK	GOLAK
1. MIMOX	16	42
2. PEDRUSCOS	16	28
3. KARKIS	15	26
4. UNIV CHILE	13	14
5. SPORTING	13	6
6. H. VERBOTEN	12	13
7. GRUAS PANA	9	5
8. LUCKY LUKE	6	-7
9. TROPIKO	5	-16
10. BERROGIE DURO	5	-35
11. FOTERO	4	-13
12. REBEL URBI	4	-21
13. RESTO MUNDO	2	-42

**AGENDA**

**FUTBOLA** Mintxetan Larunbata 19

- 11,30: Eibar Urko - Danobal (Jubenilak ohorezko Liga)
- 13,15: Urki - Aloñamendi (Jubenilak)
- 16,00: Elgoibar - Almen (Infantilak)

**Igandea 20**

- Mugerza Memorialaren LII. edizioa
- 11,00: Junior neskek
- 11,30: Junior mutilak
- 12,10: Senior emakumezkoak
- 12,45: Senior gizonezkoak

**ESKUBALOIA** Kiroldegian Larunbata 4

- 17,00: Elgoibar - Ordizia (Kadete mutilak)

**FUTBITOA** Urasandin Igandea 12

- 10,00: Mimox - Pedrusko U. de Chile - Karkis
- 11,00: Fotero - Lucky Luke Hunde Verboten - G. Pana
- 12,00: Resto del Mundo - Tropiko Rebel Urbi - Berrogei Duro

**EMAITZAK**

**FUTBOLA**

- Haundi 3 - Alaves 0
- Elgoibar 1 - Kilimon 0 (2. errejionala)
- Elgoibar 0 - S. Herrera 2 (Jubenilak)
- Elgoibar 1 - Mondragon 0 (Neskek)
- Elgoibar 6 - Aitzgorri 0 (Kadeteak)
- Pasaia 0 - Elgoibar 4 (Infantilak)

**ESKUBALOIA**

- Pagoaga Elgoibar 18 - Usurbil 3 (Kadete neskek)
- Leizaran 11 - Elgoibar 29 (Kadete mutilak)
- Elgoibar 33 - Leizaran 20 (Jubenil mutilak)
- Txankakua Elgoibar 25 - Ordizia 25 (Senior mutilak)

**FUTBITOA**

- La Maxia 4 - D. Kalimotxo 0 Replastisa 0 - Aldavas 1
- Rua 4 - King-Kong 1 G. Garcia 2 - Veterans 2
- San Roketarrak 2 - Kosakos 5 Ametsa 1 - Oraiko Cafe 4

## Keniarrak eta marrokiarrak dira favoritoak

Igande honetan Mintxetan burutuko den Mugerza Memorialaren III. edizioaren aurkezpen ofiziala egin zen joan den astelehenean. Bertan favoritoen izenak ezagutzera eman ziren. Diego Garciak ez du parte hartuko.

**E**kitaldian Iñaki San Juan Eusko Jaurlaritzako Kirol zuzendaria, Patxi Ripalda eta Andres Sanchez, Gipuzkoako eta Euskadiko Federazioko presidentek, Jose Inazio Elkoro-Iribe alkatea, Zoco etxeko ordezkaria eta Ego-Tokiko ordezkariak izan ziren. Bertan igandeko lasterketan lehen postuaren bila arituko diren korrikalarien izenak argitaratu eman ziren. Irabazteko favoritoen artean Estatutik Alejandro Gomez, Carlos Adan eta Antonio Serrano korrikalarien presentzia konfirmatu zuten, Keniatik Omwoyoren ordezkari Mathew Birir 3.000 metrotako txapeldun olinpikoa, James Kariuki,




■ ■ Astelehenean izandako aurkezpenean favoritoen izenak eman zituzten.

J. Kipkoech, Argentinatik Antonio Silio, Inglateratik Paul Evans, Marruecosetik Brahim Lahlafi... Emakumezkoetan Fernanda Ribeiro portugaldarra, Europako 10.000 metrotako txapelduna, irabazteko aukera gehien duen korrikalaria da.

Larunbatean, hilak 4, arratsaldeko 7,30etan harrera egingo zaie korrikalariari Udaletxean eta igandean, hilak 5, goizeko 11etan emango zaio haserra lehen lasterketari. Gizonezkoen lasterketa 12,45etan hasiko da eta ea eguraldiak laguntzen duen.

## Joseba Etxeberriak ezin hobeto debutatu du lehen mailan



■ ■ Kritika oso onak jaso ditu alde guztietatik.

**J**oan den igandean Errealaren eta Español taldearen arteko partiduan Joseba Etxeberria 17 urteko gazte elgoibartarrak partiduen azken 5 minutuak jokatu zituen, lehen dibisioan jokatzen zuen lehen aldia izan zelarik. Joan berri den ostegunean, berriz, telebistaz eskaini zuten partiduan Sevillan ikusi genuen Kopako partiduan. Kirol komentaristen ahotan “kalitatea eta klasea duen jokalaria gaztea”, “Errealak aprobeztatzen jakin behar duen altxorra” eta antzerakoak entzun ahal izan dira. Taldekideek ere, elgoibartarraren doaiak goraiatu dituzte. Sevillan haserako hamaikakoan ikusi ahal izan genuen eta domekako partiduan azken bost minutuak bakarrik jokatu bazituen ere, ilusioz eta

gogoz ikusi zitzaion barruko aldetik Karpin-i egindako pasea bezalako jokaldietan. Dударik ez dago jokalaria gazte honek jakin-min handia sortu duela futbolaz leen artean eta baita harro egoteko motiborik ere herritarren artean. Josebak esan bezala, gogorik eta ilusiorik ez zaiola falta erakutsi du lehen mailan jokatu dituen bi partiduetan. “Oso pozik nago, dena oso bizkor gertatu da, bi egunetako gauza izan da. Hala ere trankil nago, orandik gaztea naiz. Badakit Kodrok Compostelaren aurka jokatuko duela domekan eta ni berriro Sansera itzuliko naizela”.

Aditu guztien ustez hasera ezin hobea izan du elgoibartarrak lehen mailan. Aurrerantzean ere bide beretik jarrai dezala opa diogu.

## Santa Agedaren omenez oles egitera gatoz

“Santa Ageda bezpera degu, oles egitera gatoz”.

Aspaldiko ohiturari jarraiki, zapatu honetan, hilak 4, berriz ere berrituko dira koplak zahar hauek Santa Agedako korukideen eztarrietan. Etxegiña zenak sortutako korua goizeko 9etan jarriko da martxan, lehen koplak parrokoari eskaini eta azkena Errosario kaleko Amabirjinari kantatzeko. Hauez gain, izango da bestelako koplariarik, Elgoibarko Izarrak antolatutako gaztetxoek eta nagusien koplak taldeak, hain zuzen.

**G**aur hilak 3, San Blas eguna, bihar hilak 4, Santa Agedako koruak. Hilaren 5ean, igandea, Santa Ageda eguna eta Mugerza krosa Mintxetan. Bularrak moztu zizkionten Santa Agedaren omenez irten-go dira kantari koplariak eta korukideak txapela eta atorra jantzita, kriseilua eskuan eta makilari lurra-aren kontra kolpea emanez. Goizeko 9etan usadioak agintzen duen bezala, Plaza Handitik aterako dira. Lehen koplak parrokoari abestu ondoren, kalez kale, eskean joango dira. Kalejira bukatzerako, Errosario kaleko Amabirjinaren aurrean, ordubiak pasatxo izan ohi dira. Aurten, koruan urte askotan abesten jardun duten lau koplari omenduko dituzte: Patxi Iriondo, Felix Juaristi, Rafael Areitiourtena eta Jose Kruzelegi. Eguerdian, ohi denez, eta egunari amaiera emateko babarrun jana izango dute *Baltasar* elkartean.

Santa Agedako koruen antolakuntzak dei bat luzatu nahi die elgoibartar guztiei, gaztetxoek eta emakumezkoek batez ere,



■ ■ **Gaztetxoek goizez aterako dira auzoz auzo eskean. Eskuman Etxegiña, semea eta ilobarekin.**

larunbat goizean kantura atera daitezten animatzeko.

### **Baserri baserri koplak kantari**

Aurten ere, iaz ekin zioten biderei segituz, Elgoibarko Izarrakoak baserri baserri ibiliko dira koplak kantari. Aurten gainera, antolatzaileek adierazi dutenez, Elgoibarko auzo guzti guztiak pasatzeko asmoa dute. Horretarako goizean gaztetxoek taldea ibiliko da Urruzuno eta San Roke auzoetako baserrietan. Arratsaldean, berriz, nagusien txanda izango da, San Pedro auzoa zeharkatuko dutelarik. Bukatzeko, gauean bi taldetan banatuko dira, San Migel eta San Lorentzo auzoko baserriak koplatzeko.

Koplariak dagokienean, gaztetxoek taldean Elgoibarko Izarrako Bertso Eskolako ikasleak arituko dira. Nagusien taldean hiru izango dira koplariak, German Meabebasterretxea eta Jabier “Ziarda” elgoibartarrak eta Juan Mari Areitio bizkaitarra. Musika atalean Elgoibarko Trikitilari Eskolako sei bikote arituko dira.



**Bi koplak hauek Kepa Urainek aurtengo eskerako egindako koplak artetik hartutakoak dira:**

“Santa Ageda aipagarri zan lengo guraso zarretan, kupitzen ziran neskatxak izan zituen ezbearretan.

Bere gorputza ain garbi beti zuen alako arretan, ta azkenian il zan gaixoa etsaien atzaparretan”.

“Ez degu ezer eskatzen, baina badakigu artzen. Borondatian sari eder bat digutenian ematen”.

**Kepa Urain**

## SAN JUAN BOSCO Jaia



Goizeko 8,30etan eman zitzaion hasera jaiari kros baten bitartez. Bertan 400 pertsona inguruk korritu zuten. Jarraian goiti-beherak izan ziren, dagoeneko Bosko Deunaren eguneko ezaugarri bihurtu direnak. 12 goiti-behera izan ziren guztira, zein baino zein ikusgarriagoa. Mountain Byke lasterketa eta gero 28 taldek, patata tortila egiteko duten abilitadea erakutsi zuten. Soka tira eta arto jokoa Polikiroldegian izan ziren eta bi ekintza hauetan hainbetse jendek eman zuenek izena, jarraian jokatzeko prestatua zegoen ikasle eta irakasleen arteko futbito partidua suspenditu egin behar izan zen.

Bosko Deunaren eguna ospatu zuten joan den ostiralean, urtarrilak 27, Herriko Institutuko ikasle eta irakasleek. Jai eguna izan arren, bestetan bezala, goizean goiz esnatu behar izan zuten baldin eta antolatua zeuden ekintza guztiak ikusi nahi bazuten.

Aurten lehen aldiz, orain arte bi ikastetxe izan direnak modu bateratuan ospatu dute Bosko Deunaren Eguna, Institutuak eta Mekani-kak, gaur egun Herriko Institutua denak. Hori dela eta ikasleen partaidetza igo egin da ekintza ezberdinetan.

Talde irabazleek

bidaia bat jaso zuten saritzat. Egun bateko txangoa izango da, ikasle irabazleek aukeratzen duten tokian egun-pasa.

Eguerdi partera irakasleek bazkaria izan zuten Kiroldegian. Antolatzaileen nahia bazkarian ikasleak ere egotea izan arren, Arantxa Kortabariak, antolatzaileetarikoko batek esan digunez, "horrenbeste izanik ezinezkoa egin zitzaigun modu bateratu batean egitea. Halere, maiatza aldera, eguraldi ona dagoen egun batean, Plaza Haundian mahaiak jarri eta guztiontzat bazkari bat antolatzea da gure asmoa".

Arratsaldean **BERTSO SAIOA** izan zuten Guass dantzalekuan. 6,30etan hasita, Aitor Mendiluze, Jesus Mari Irazu, Irati Agirreazaldegi, Ainhoa Agirreazaldegi, Iker Agirre, Joseba Lasagabaster, Egoitz Aizpuru eta Jon Maia bertsolari gazteak aritu ziren, German Meabe gaijartzailearen eskutik. Ondoren, musika erabat aldatuz, "bakalao"aren erritmora dantzatu zuten gazteek, eguna eta gava gorputzak aguantatu artean luzatuz. Datorren urtean ere izango da Bosko Deunaren eguna.



## OTATZA

Otaza auzoa • ☎ 80 17 57 • ZERAIN (Gipuzkoa)

### Maria Urizar

ileapaindegi  
mixtoa

Errosario 9-1ezk.  
☎ 74 44 89 ELGOIBAR



## Garajeak

GARAJE BAT alokatzen dut San Roken, 5 zenbakian. Marraduna.  
☎ 74 02 61

GARAJE BAT daukat alokatzeko San Rokeko pista beltzean. Marraduna.  
☎ 74 21 64

Marradun GARAJE BAT saltzen dut. Santa Ana 6.  
☎ 74 02 81  
9etatik aurrera

GARAJE BAT saltzen dut, ganbara eta guzti "Anaiak" edifikazioan. Prezio onean.  
☎ 74 17 60 / 74 34 01 Iñaki

GARAJE ITXI BAT alokatzen dut Santa Ana 46 zenbakian.  
☎ 74 13 67

## Salerosketak

MUSIKA KATE BAT saltzen dugu. Philips markakoa, erabili gabea eta berri-berria.  
☎ 74 26 26  
☎ 74 20 31  
Gauetz

BMX KLASEKO BI BIZIKLETA saltzen ditut. Bata Peugeot markakoa, oso ondo zainduta, eta bestea Huch (USA) markakoa: kuadro orijinala, bakarra, frenoak, llantak eta manillarrak erregalatu.  
☎ 74 34 05

AEG markako erropa lehertzeko SEKADORA BAT saltzen da. Berria dago.  
☎ 74 34 06

Randy markako PATIN BATZUK (bi errobera aurrean eta bi atzean) saltzen dira. 37 tailakoak. 4.000 pta.  
☎ 74 17 60

ARGAZKI KAMARA BAT SALGAI. Yashica 108 Reflex Multi/Program 35-70 Zoom. Flash-a eta funda opari gisa. Egoera oso ona eta prezio oso merkea.  
☎ 74 18 61

VOLKSWAGEN GOLF GTI 16V. (SS-AF) SALTZEN DUT. Prezio interesgarria.  
☎ 74 42 59 Jose Mari

"Silver Cross" markako KOTXE KAPOTA BAT saltzen dut. Oso ondo dago.  
☎ 74 11 28 Juani  
☎ 74 20 77 Gloria

NINTENDO KONSOLA ETA 6 JOKU saltzen ditut. Prezio onean.  
☎ 74 13 97  
8,30etatik aurrera

Desmontatu daitezkeen APAL METALIKOAK saltzen dira. Egoera onean.  
☎ 74 01 75

## Etxebizitzak

ETXEBIZITZA BAT alokatuko nuke.  
☎ 74 14 63

LOKAL BAT daukagu alokatzeko Ermuaranbiden 16 - 2. solairua. 325 m<sup>2</sup>.  
☎ 75 19 44 Mari Luz

## Lana

Edozein testu mota ORDENAGAILUZ PASATZEN DA. Grafikoak sartzeko aukera.  
☎ 74 41 77 Maria  
☎ 74 22 77 Iratxe

3 urteko neskatxo bat zaintzen dut. HONEKIN JOLASTUKO LUKEEN BESTE BAT zainduko nuke.  
☎ 74 12 26  
4etatik 8etara

HAURRAK ZAINDU edota ETXEKO LANAK egiteko prest nago.  
☎ 74 41 75 Txari

Mutil euskalduna aste osorako EDOZEIN LAN EGITEKO eskaintzen da. Gidatzeko karneta B1.  
☎ 74 23 30 Josu

OHOkoko irakasle eta Ingenieritza tituloak ditut eta PARTIKULARRAK EMATEN DITUT.  
☎ 74 01 48 Alazne

Ingelesa ikasi nahi duen NESKA BAT behar dugu haurrak zaintzeko LONDRESEN ELGOIBARKO FAMILIA batean. Apiriletik aurrera  
☎ 74 08 17

PEDAGOGIAN lizentziatuak eta 6 urteko esperientziarekin, OHOkoko eta REMeko klase partikularrak ematen ditu euskaraz zein gazteleraz.  
☎ 74 39 24 Maite

## Bestelakoak

Hilaren 19an BELARRITAKO BAT galdu nuen San Inazio eta Onena bitartean. Perla zuri bat du erdian eta perla txikiagoak bueltan.  
☎ 74 19 71

Urtarrilaren 9an, Maalako iturriaren ondoan, MOTXILA BAT galdu nuen. Barruan Hiztegia 2000 zuen.  
☎ 74 24 43 Koro

Edozein testu mota ORDENAGAILUZ PASATZEN DA. Grafikoak sartzeko aukera.  
☎ 74 41 77 Idoia/74 22 77 Iratxe.

Perla urdinak dituen PULTSERA BAT galdu dut. Aurkitzen duena saritzeko prest nago.  
☎ 74 05 74 Maite

CARITASEk sukalderako nahiz salarako ARMARIO BAT behar du.  
☎ 74 15 09  
☎ 74 12 57

## ABENDUAN

### Hildakoak

- ▶ Manuel Osoro Retolaza, 73 urte (Hilak 1)
- ▶ Julia Pavamar Gistas, 80 urte (Hilak 5)
- ▶ Blas Toledano Garcia, 83 urte (Hilak 8)
- ▶ Dominica Arrieta Gurrutxaga, 80 urte (Hilak 14)
- ▶ Eduardo Gomez Antolin, 37 urte (Hilak 29)
- ▶ Francisco Martin, 74 urte (Hilak 22)
- ▶ Feliciana Artetxe Egia (Hilak 24)

### Jaiotakoak

- ▶ Maria Elena Ferreiro Gil (Hilak 13)
- ▶ Iker Zapata Ferrero (Hilak 15)

### Ezkondutakoak

- ▶ Mapi Arriola Arrizabalaga eta Igor Azpiroz (Urtarrilak 28)



Familiakoren bat edo lagunen bat hiltzen bazaizu BARRENez eskelak, urteurrenak edo esker onak azaltzeko toki bat eskeintzen dizu. Deitu gure telefonora:  
☎ 74 41 12

## 3 OSTIRALA

### 19,00 MARGOEN ERAKUSKETA

Egilea: Alberto Ramirez  
 ✓ Kultur Etxean  
 Hilaren 18ra arte

### 21,00 PATXI ARRIOLARI OMENALDIA

✓ La Union elkartean

### 22,15 ANTZERKIA

ORAIN Taldea  
 Antzezlanak: Modigliani  
 ✓ Herriko Antzokian

## 4 LARUNBATA

### 09,00 SANTA AGEDA KORUAK

✓ Irteera Plaza Handitik.

### 09,00 SANTA ESKEA

Haurren taldea  
 ✓ Irteera Plaza Handitik  
 Urruzuno eta San Roke auzoak.  
 Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

### 15,00 SANTA ESKEA

Nagusien taldea  
 ✓ Irteera Plaza Handitik  
 San Pedro, San Migel eta San Lorentzo auzoak.  
 Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

### 19,30-22,15 ZINEA

"Peligro inminente"  
 ✓ Herriko Antzokian

## 5 IGANDEA

### LII. MUGERZA KROSA

11,00: Junior Neskak  
 11,30: Junior Mutilak  
 12,10: Senior Emakumezkoak  
 12,45: Senior Gizonezkoak  
 ✓ Mintxetan  
 Antolatzailea: Ego-Toki  
 Babeslea: Zoco Patxaran Etxea

### 16,30 ZINEA

"La historia interminable III.  
 Las aventuras de Bastian"

### 19,30-22,15 ZINEA

"Peligro inminente"  
 ✓ Herriko Antzokian

## 6 ASTELEHENA

### 22,15 ZINEA

"Peligro inminente"

## 7 ASTEARTEA

### 22,15 ZINEA

"Cumbres borrascosas"  
 (Ikuslearen eguna)

## OSTIRALA

### 22,15 ZINEA

"Los peores años de nuestra vida"

## txandak

### FARMAZIAK:

EGUNA	EGUNEZ	GAUEZ
4, larunbata:	Ormazabal	Escala
5, igandea:	Ormazaba	Escala
6, astelehena:	Etxeberria	Zabaleta
7, asteartea:	Etxeberria	Zabaleta
8, asteazkena:	Etxeberria	Zabaleta
9, osteguna:	Etxeberria	Zabaleta
10, ostirala:	Etxeberria	Zabaleta

### FARMAZIEN ZUZENBIDEAK:

Escala: Rekalde 1, Plaentxi  
 Tel. 75 16 38  
 Zabaleta: Kalebarren 9, Plaentxi  
 Te. 75 13 84 |

### OKINDEGIA:

5, igandea: FOTERO

## ZINEA

### Peligro inminente

USA 1994

Zuzendaria: Philip Noyce  
 Antzezleak: Harrison Ford,  
 Willem Dafoe, Ane Archer.  
 Iraupena: 141m.

Jack Ryan (Harrison Ford) CIAko zuendari orde berria da. Colombiako narkotrafiko sare bat desegin behar duenez, puntako teknologian jakituna den aditu bat (Willem Dafoe) kontratatuko du. EEBBetako presidentearekin harreman estuak zituen negozio gizon baten hilketak, hildakoaren eta Colombiako kartelaren arteko harremanak bistan uzten ditu. Ryan-ek bere kabuz ikertzea erabakiko du. Bien bitartean presidenteak berak bi gizon bidaliko ditu ekintza paramilitar batera.

## ZINEA



### Cumbres borrascosas

Zuzendaria: Peter Kosminsky.  
 Antzesleak: Juliette Binoche,  
 Ralph Fiennes, Jason Riddington.

Cathy eta bere anaia Hindley zoriontsu bizi ziren, hauen aitak mutiko umezurtz bat "Cumbres borrascosas"era bizitzera eraman arte. Umezurtzaren etorrera Jainkoaren oparia zela uste zuen aitak. Hau hiltzean, anai ordekoak, Hindleyk zaldiekin bizi izatera behartzen du umezurtza. Bien bitartean Cathyk Edgar Linton izeneko gaztea ezagutuko du, gazte dotore eta erakargarria. Lintontarren ustez, umezurtza bezalako jendeak ez du beraiek bezalako pertsonen begirunerik merezi. Cathy Edgar-ekin ezkonduko da eta umezurtzak mendekua lortu nahi izango du bere bizitza suntsitu duten haien aurka.



**sake**  
KOPERATIBAK



*Otsailaren 15tik 28ra bitartean*



## ITZIARKO NEKAZARI KOOPERATIBA

<b>PRODUKTUA</b>	<b>PREZIOA</b>
Txarrantxa erizo 17-4-10	2.485 pta
Txarrantxa lowa 13-8	3.045 pta
Txarrantxa lowa 14-8	3.445 pta
Ardi sarea 100-8-15	6.890 pta
Ardi sarea 100-8-30	5.430 pta
Ardi sarea diclo 95-9-15	4.415 pta
Ardi sarea diclo 95-9-30	3.205 pta
Jardiclo 50-1m rollo 25m	5.150 pta
Jardiclo 50-1,20m rollo 25m	6.195 pta
Jardiclo 50-1,50m rollo 25 m	7.730 pta
Plastif. 3-1m rollo 25m	5.255 pta
Plastif. 3-1,50m rollo 25	7.865 pta
Plastif. 3-2m rollo 25m	10.510 pta
Oilo sare 1m-50 rollo 10m	1.935 pta
Oilo sare 1m-50 rollo 25m	4.105 pta
Urkilak 18x30	265 pta
Ittzeak (neurri guztiak)	130 pta

Itziarko industrialdea E-13 ITZIAR - Tel: 19 93 00 - S. Frantzisko 24 ELGOIBAR Tel: 74 07 62

